

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2008-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bizkaiko Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazioa mamitu du; baita, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen Kontuena ere, guztia 2008ko ekitaldikoa. Txostena Osokoaren kideen gehiengoak onetsi du, nahiz desadostasunezko boto partikular bat izan duen.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, kudeaketa hobetzeko gomendioak luzatzen ditu eta Foru eta Erakundeen Administrazioaren finantza egoera aztertzen du.

Foru Aldundiak legea betetzeari dagokionez, HKEEk uste du 2008an ekonomia-finantza jarduera betetzean indarreko arautegia gorde duela; alabaina, hainbat salbuespen jaso ditu, txostenean bertan bereizi direnak.

Bada, Epaitegiak Aldundiak Europako Erkidegoetako Auzitegiaren aurrean aurkeztutako kasazioko errekursoaren gaineko zalantza egoera azalerratu du, BFAk egindako salbuespen, dedukzio eta hobari fiskalak berreskuratzeari dagokionez Honi dagokionez, HKEEk azpimarratu du Europako Batzordeak ez duela BFAk erabakien exekuzioari dagokionez gauzatutako jardueren gaineko irizpenik eman.

Berebat gai fiskaletan, HKEEk azpimarratu du guztira 17,5 milioi egin duten 66 ordainketa gerorapen eman zaizkiela 9 zergapekori; gerorapen horiek 2008rako legez finkatutakoa baino interes tipo txikiagoarekin eman dira. Hala ere, foru arautegiak aurreikusia du gerorapenak baldintza berezietan emateko aukera, nahiz arautegi horretan ez dituen mozkin horiek emateko betekizunak zehazten. Beste kasu batean, gerorapena (1,9 milioi euro) dagokion bermea aurkeztu gabe eman zaio.

Administrazioiko kontratazioaren fiskalizazioan, ez betetzeak publizitate eta lehia printzipioak urratuz gauzatu dira, ez baita horiek ez ezartzeko apartekotasuna arrazoiz justifikatu, edo kontratuaren xedea zatikatu baita, beharrezko diren prozedurak bideratzera behartzen duten mugetara ez iristeko.

Guztira 7'1, 5'7, 3'8 eta 2'9 milioi eurotan esleitutako lau obra kontratuk aldaketak jasan dituzte exekuzioan zehar eta hurrenez hurren, kostua % 39, % 39, % 74 eta % 90 gehitu dute; horiek, arautegiari jarraiki izapidetu ziren arren, zenbatekoaren garrantziak urratu egiten ditu kontratuen legerian jasotako lehia printzipioak, kontratuaren xedea eta bolumen ekonomikoa desitxuratu direlako.

Diru-laguntzak emateari dagokionez, BFAk zuzenean eta deialdi publikoa egiteko ezintasuna egiaztatu gabe 22,7 milioi euroko 21 diru-laguntza eman ditu. Diru-laguntza molde honek apartekoa behar du izan eta aldez aurretik deialdi publikoa deitzeko ezintasuna justifikatu behar da.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak 2008an, hainbat eratako gizarte ekipamenduak sortzearren, lurrak, eraikinak eta lokalak erosteko zazpi eragiketa egin zituen. Guztira 6,4 milioi euro izan ziren, baina espedientean ez zen egiaztatu ondasuna berezia zela, publizitaterik eta lehiarik sustatu gabe zuzeneko erosketa egiteko.

BFAren Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk uste du egoki erakutsi duela 2008ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen isla leiala eta itxierako finantza egoera, hainbat ez-betetze salbuetsita, besteak beste, eragiketak erregistratzeko erakunde fiskalizatzaileak onartzen ez dituen irizpideak erabili izana.

Txostenak, gainera, hiru erakunde autonomoak, % 50etik gorako parte-hartzea duten hamalau foru sozietate publikoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoa besarkatzen ditu; erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du eta azpimarratu dituen ez-betetze eta salbuespenak txostenean daude jasoak.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalei, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, diru-laguntzen emakidari, langileen kudeaketari eta gerorapenak ebazteko eta bermeak aurkezteko epeekin lotutako sarrera fiskalei dagozkienak. Horietako hainbat egoera eta gomendio aurreko ekitaldietako fiskalizazio txostenetan jasotako berberak dira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Txostenari, gainera, honako hauek erantsi zaizkio: BFAREN kontuak, Erakunde Autonomoenak, Enpresa Publiko eta Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoenak, Txostena argitzeko hainbat Eranskin eta desadostasunezko boto partikularra osotasunean.